


IRUDITAN

Udako jaien denboraldiari, hasiera dotorea

Herri inauteriena ezinbestean neguko zikloi lotuta dagoen tradizioa da, eta herri bakoitzean pertsonaia berezi batek tokian tokiko ezaugarriak adierazten ditu. Arabako Errioxaren kasuan, Katximorro da pertsonaia nagusia, eta, adibidez, Bastidan edo Oionen neguko pertsonaia ere bada. Guardian, ordea, neguko hotzak atzean utzi eta udako San Juan eta San Pedro jaiekin batera hartzen du herriak distira gehien, eta, horretan ere, noski, Katximorro da erreferentzia nagusia. Milaka kolorez jantzita, eskuetan makil bat darama, eta, horri lotuta dagoen lastoz betako untxi baten larruaz baliatzen da herriko dantzariei bidea irekitzeko, Guardiako kale estuetan zehar auzokideen txaloak eta laudorioak jaso ditzaten. Zeregin horretan, herriko musika bandak eta gaiteroak dituzte lagun.

Argazkiak: Juanma Gallego / ALEA



Bidali zure argazkiak testu labur batekin: erredakzioa@alea.eus

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI MARRAZKILARIA

